

Nafarroako zenbait ibar, herri eta auzoren euskarazko izenaz (II)

PATXI SALABERRI*

Oraingo lan hau *Euskera* aldizkarian argia ikusi duen izen bereko beste artikulu baten jarraipena da. Bertan Nafarroako zenbait ibar, herri eta auzoren euskal izenez dihardugu, kontutan bereziki izen horiek euskal toponimoetan (osagaitzat **bide**, **muga**, **dermau**, **agerri**...eta beste dituztenetan) aurkezten duten aldaera hartzen dugularik. Agiri eta paper zaharrak ikusi ahalean datu berriak (guk nahi baino anitzez gutxiago) atereaz doaz, eta bestalde, gai honetaz pentsatzearen bortxaz lehen modu batera ikusten genuen punturen bat edo beste orain beste modu batera ikusten dugu. Datu berri horiek eta ikuspuntu mudatu horiek dira, bada, hemen argitara eman nahi ditugunak.

Izenak banan-banan aztertzeraz igaro aitzinetik, Nafarroako toponimia nagusiaz mintzo garenean kontu ia orokortzat aitor daitekeen txistukarien tratamenduaz ohar batzuk egin nahi ditugu. Izan ere, NHI egin zelarik aski eztabaidagarri suertatu ziren bukaeran -z zuten herri-izenak, alegia, erdaraz bukaera hau (-z [θ]) zuten herri-izen guztiek euskaraz -tz ([c]) behar zuten ez zen sobera garbi ikusten, zeren, adibidez, hizkuntza ofizialaren eragina txikia izan dela susma daitekeen herri zeharo euskaldunetan bukaera hori -z baita batzuetan. Zalantza honen ondorioa izan zen Baztango herriak euskaraz ere -oz-ez normalizatzea, gainerakoan beti -otz nahiago izan bazen ere, batzuetan Nafarroako zenbait eskualdetako euskaldunen erabileran oinarritu ginelarik, eta besteetan afrikatua aurkezten zuten lekuko zaharretan edo analogian.

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Hemen oikonimo batzuetan aurkitzen ditugun herri-izenak aipatu nahi genituzke, oikonimo horietan garbi ikusten baita jatorriz herri-izena zenak bukaeran afrikatua zuela. Hau argi ageri da izen bera batean -z-z eta hurrengoan -ch-z idatzirik edireten dugunean, bikoiztasun honek ezbairik gabe -tz genuela esan nahi baitu. Hona hemen izenak:

1. ESPOTZ

Lizoain herriko **Espotzena** etxe-izenean aurkitzen dugu:

“Una pieza... en... Ondazubia afrontada con regata... y con viña de Espochena”, 1820¹.

“Otra huerta... afrontada con la Huerta de la Casa de Espozena y pajar de Guemberena (...) Yten otra (pieza) en el paraje de Barbain afrontada con camino Real para Uroz y con viña de Espochena”, 1820².

2. GALDUROTZ

“otra pieza en... arrascoa... afronta con pieza de Perurena del lugar de Lizarraga y... con pieza de Galdurochena”, Idoate, 1706³.

3. IDOTZIN

Izen honek, ikus daitekeenez, txistukaria barruan du, ez bukaeran. Izen-degian **Idotzin** eman zen erdarazko Idocin-en euskarazko baliakidetako, oker ez bagaude -ç-dun lekuko zaharretan oinarri harturik. Orain, eta eskualdeko etxe-izen bati esker, badakigu Idotzin esaten zela, eta beraz Akademiak hartu erabakia zuzena dela:

“Otra pieza en Recaldea... afronta con pieza de Ydozinena...”, Idoate, 1706⁴.

“Una pieza... en... Euilocho que afronta con Pieza de Angelena y Camino de Lizarraga y Pieza de Ydochinena”, Idoate, 1744⁵.

Beste aldetik, badakigu, txistukariaren izaera goitibeheiti, aldaki hauxe ibiltzen zela gure hizkuntzan.

3.1. Idotzinmugabidea

“Mas otra pieza en el termino de Agoain llamado el paraje Ydozin muga bidea”, Altzorritz, 1715⁶.

1. Agoizko hipotekak, 2. lib., 320. org.

2. Ib., 321. org.

3. PRA-Elo, 13. k.

4. Ib., 14. k.

5. Ib., 26. k.

6. Ib., 16. k.

4. LERRUTZ

Ibargoitiko Getzen dokumentatzen da:

“Mas un linar en los Linares afrontada con Linares de las casas de Lerruz y Asnoz”, 1652⁷.

“una bina... perteneciente a la Cassa de... Lerruzena”, 1691⁸.

Aurrerago, 1800. urtean, Lerruchena itxurapean dokumentatzen da⁹.

5. MENDIOROTZ, OROZMENDI, OROTZ

Izendegian egoki esaten denez, herri bera adierazten duten hiru izenok azaltzen dira dokumentazioan:

“don fermin de oroz Rector del dco lugar de oroz mendi migl ansorena... anton cenborayn mi. primo... vezos del dco lugar de oroz mendi... otra pieca en la endre^a llamada Curra payta afronda... con Camjo que van de oroz para el lugar de azpa...”, Mendiorotz, 1591¹⁰.

“vez^o del lug de ydoate... dos piezas... en el lugr de oroz mendi la una en ychaustia... afronda... con el regacho”, Mendiorotz, 1593¹¹.

“la prim^a pieca en mendi urrutia... afronda... con yermo de la fazeria de entre oroz y eransus...”, Erantsus, 1593¹².

“y la sesta pie^a en el Camjo de UrtaRoz llamada malda andieta... afroda. con el Cam^a q ban de oroz a urtarroz...”, Erantsus, 1593¹³.

Naxurietan soinu afrikatua ([c]) islatzen duen **Orochena** aldaera aurkitu dugu, bertako etxe-izen batean:

“Una (pieza)...en el paraje que llaman Ugarcoa termino de dho Lugar de Unciti, afrontada á piezas de Pericorena de él, y Orochena de Najurieta”, 1801¹⁴.

6. URITZ

Hau ere Naxurieta herrian azaltzen da:

“La casa llamada en dho Lugar la de Urichena”, 1751.

Orain bestelako arazo batzuk aurkezten dituzten zenbait herri-izen ikusiko ditugu.

7. Ib., 2. k-bis.

8. Ib., 12. k.

9. Ib., 50. k.

10. PRA-Urrotz, 3. k., 15. zkia.

11. Ib., 4. k., 18. zkia.

12. Ib., 28. zkia.

13. Ib.

14. PRA-Elo, 50. k., 28. zkia.

7. AIZKOA, AZKOA (AZCONA)

NHI-n ikus daitekeen moduan¹⁵, XIII. eta XIV. mendeetan **Aizcona**, **Aysquona** eta **Ayzcona** aldaerak dira jaun eta jabe, **Azcona** 1280rako azaltzen bada ere. Euskarazko izenaren aurren aldaera (**Aizkoa**) **Aizcona**-tik aterada, eta bigarrena **Azcona**-tik, bi kasuetan bokal arteko sudurkaria erori delarik, beste askotan bezala.

7.1. Aizkoabidea, Azkoabidea

"Una vina en el termino que llaman aizcoavidea", Arizala, 1722¹⁶.

"otra pieza... en... Elizguibela... otra pieza en Azcoabidea", Iruñela, 1768¹⁷.

7.2. Azkoagingunea

"otra (pieza) en el termino de Azcona llamado Azcoaguineua", Azkoa, 1767¹⁸.

8. ARTZI

Izendegian **Artzi** eta **Artzibar** aukeratu ziren erdarazko **Arce** eta **Valle de Arce**-ren euskarazko ordaintzat, zuzen, gure ustez. XVII. mendeko dokumentazioan arrunta da **Arçi**, **Arci** aurkitzea, erdaraz erabilia nahiz toponimo euskaldun baten barruan:

"la abadía del lugar de quiza de la balle de Arci es anexo a la dca dignidad", Orreaga, 1612¹⁹.

"En el lugar de nagore de la balle de arçi Obispado de Pampl...", Nagore, 1613²⁰.

"en el lugar de Uryz de la balle de Arçi...", Uritz, 1614²¹.

"En el lugar de Çandueta de la balle de Arçi", Zandueta, 1615²².

"... en toda la balle de Arçi...", Itoitz, 1615²³.

"En el lugr. de jmizcoz de la balle de Arçi...", Imizkotz, 1622²⁴.

"En el lugar de Azparren de la valle de Arci...", Azparren, 1623²⁵.

"En el lugr de Espoz de la Valle de Arci...", Espotz, 1623²⁶.

Orobat toponimo euskaldun baten osagaia denean.

15. 165. or.

16. PRA-Lizarra, 477. k., 32. zkia.

17. Deierriko hipotekak-1, 73. lib., 171. org.

18. Ib., 31. or.

19. PRA-Agoitz, 14. k., 51. or.

20. Ib., 287. or.

21. Ib., 587. or.

22. Ib., 15. k., 70. or.

23. Ib., 226. or.

24. Ib., 16. k., 465. or.

25. Ib., 605. or.

26. Ib., 610. or.

8.1. Artzilanda

“Una bina... en la parte llamada Arçi landa que se afrenta con Viña de Juanes gojcoa y de gil miz. (Martinez edo Martiniz) de nagore”, Nagore, 1613²⁷.

Arangurengo Labio herrian atzizkirik gabe **Arçe** itxurapean eta atzizkiz horniturik **Arcicoa**, **Arçicoa** bezala agertzen zaigun oikonimoa dugu:

8.2. Ar(t)ze, Ar(t)zikoa

“Mas otra casa... afrontada con... huerta de Arçe”, Labio, 1648²⁸.

“otra viña...en ylundaynbidepea que afrentta con vinas de la Cassa de Arcicoa y... con pieca del dho Arçicoa”, Labio, 1654²⁹.

“otra pieza en ezcorizpea afrontada Con pieza de la Casa de Arzicoa y Con pieza de la Cassa de echeberricoa”, 1693³⁰.

9. ALDUATE (ALDUNATE)

Bitan dokumentatu dugu bokal arteko sudurkaririk gabeko aldaera. Bigarren lekukoa ez da argia; lehena bai, ordea.

9.1. Alduatebidea, Alduatebidegoiena

“Otra pieza... en el termino de Alduate bidea afronta con piezas de la Casa de Juantorena...”, Sengaritz, 1687³¹.

“Otra pieza en Alduate bide goieña... afronta con piezas de Lavairurena y de Condearena y Camino de Aldunate”, Sengaritz, 1694³².

10. ALTZUTZA

Izendegian **Altzuza** hobetsi zen, baina han-hemenka ugariak dira izen hau **Alchucha**- itxurapean duten toponimoak. Cf., esaterako, Burlatako edo Uharteko **Altzutzate**-ren lekukoak³³. Etimologia ere **Altzutza**-ren alde mintzo da, bukaeran itxura guztien arabera **-tza** ugaritasunezkoa baitugu. Dena den, Burlatako eta Uharteko toponimoetako **Alchucha** Eguesibarreko herri-izena den ez da erabat segurua, eta beste aldetik, aipatu **Altzutzate** toponimoak **-sate** bukaera duten aldaera franko ditu. Hauek, agian, ate-ren adierakidea irudi duen **e(t)sate**-ren (**sate** bilakatua zenbaitetan, hala nola Za-

27. Ib., 14. k., 287. or.

28. PRA-Elo, 2. k.

29. Ib., 2. k-bis.

30. Ib., 12. k.

31. Ib., 11. k.

32. Ib., 12. k. Alduate-ren bigarren eta hirugarren silabak ez dira argiak.

33. JIMENO JURIO, *Estudio toponímico de Burlada*, Burlatako Udala, Burlata, 1991, 47. or., eta NTEM-I, 70. or.

reko **Martisatea**-n) aldaerak baizik ez dira izango. Gainera, eta eskuarki, **-tze** ediren ohi dugu alderdi honetan, ez **-tza**.

10.1. Altzutzaegia

“otra viña en Larrazcuren... que afrenta con viñas de Liçarragarena... otra viña... en la endreçera llamada alçuça eguia”, Elkano, 1638³⁴.

10.2. Altzutzamuga

Irotzen ageri da, 1901eko katastroan (**Alzuza-muga**, **Alsusa muga**).

10.3. Altzutzara bidea

“otras tres viñas...sitas en el termino del dicho lugar de elcano en la endreçera llamada alçuçara bidea”, Elkano, 1610³⁵.

11. ARGIÑAO (ARGIÑANO)

Dugun lekuko bakarrean bokal arteko bigarren kontsonante sudurkaria erori da, eta erdarazko aldaeran arrunta den bustidura falta da. Dena den, eta dugun lekuko-gabezia dela eta, ezin seguru egon bustidura-ez hori fonikoa den ala kontu grafiko huts baten aitzinean gauden.

11.1. Argiñaobidea

“otra Pieza... en el termino Llamado Arguinau bidea que afronta con Pieza del dho Juan de Azcona y Juan de Oses vezo. de Arguiñano”, Errezu, 1700³⁶.

12. ARROITZ (ARRÓNIZ)

Izendegian **Arronitz** eman zen erdarazko **Arroniz**-en euskarazko balia-kiderako, baina eskualdeko euskaldunek **Arroi(t)z** aldaera, hots, bokal arteko sudurkariaren erortzea nozitu duen aldaera ibiltzen zutela badakigu.

12.1. Arroizkaña

“otra pieça... en el termjo de aRoniz dollaman aRoyzcajña”, Barbarin, 1570³⁷.
 “una pieça... en el terº llamado Arruzcana... q afruenta... a... Ribaços”, Arroitz, 1600³⁸.

34. PRA-Uharte, 60. k.

35. Ib., 42. k.

36. PRA-Lizarra, 472. k.

37. Ib., 8. k. R-k [flr] adieraztea aski gauza arrunta da garai honetako dokumentazioan.

38. PRA-Arroitz, 9. k.

“otra p^a... en el Cam^o Real que ban a ARoniz... otra p^a en ARoizcaña”, Barbarin, 1612³⁹.

“otra p^a en el termino deste lugar llamado aRezcaña que se afrenta a camino publico”, Barbarin, 1614⁴⁰.

13. GAUZA

Hau da erdarazo **Ganuza**-ren euskarazko kide jatorra, ez izendegian agertzen den **Ganutza**. Ikusten ahal denez, bokal arteko sudurkaria erori egin da, beste anitzetan bezala. Dena den, txistukariari zer tratamendu eman behar zaion ez da garbi ageri; izan ere, herri-izen honen lehen lekukoek ç eta z azaltzen dute, eta gero ez dugu behin ere aurkitzen afrikatu baten adierazle izan daitekeen ch digrama. Hortaz, eta gure irudiz, **Gauza** hobetsi behar genuke.

13.1. Gauzako ardantza

“una vina... en el ter^o Del dho lugar llamado gauzaco Ardanza”, Ollogoien, 1711⁴¹.

14. GEZALATZ

Toponimian maiz **gesala** eta **gezala** txandaketan aurkitu ohi ditugu, herri berean eta are toponimo berean. Nafarroako bailararen erdarazko izena **Gesálaz** bada ere, euskal toponimia txikian **Gezalaz** aurkitzen dugu, eta badirudi hau zela eskualdeko euskaldunek ibiltzen zuten aldaera, seguru asko bukaeran afrikatua zuela.

14.1. Gezalazbidea

“otra pieza... en dho term^o llamado Guezalazvidea... Yten otra (pieza)... en el ter^o de Guezalazvidea afta con camino que van los de Guesalaz para la Ciudad de Estella...otra pieza en Guezalazvidea...”, Aizkoa, 1700⁴².

15. HIRIBERRI (VILLANUEVA DE LÓNGUIDA)

Erdarazko **Villanueva**-ren euskarazko ordaina **Hiriberri** dela ezaguna baino ezagunagoa da: cf., adibidez, **Villanueva de Arakil**, **Villanueva de Aezkoa** = **Hiriberri**. Guztiarekin ere, Longidako **Villanueva** euskal itxura-

39. Ib., 280. zkia.

40. Ib., 10. k.

41. PRA-Artabia, 20. k.

42. Deierriko hipotekak, 73. lib., 32. org.

pean hirutan baizik ez da dokumentatu orain arte, XIII, XIV eta XVI. mendeetan (ikus NHI, 180. or.). Guk hiru lekukotasun berri dakartzagu hona:

“Ytten un linar... que tienen en el termino de yriberri”, Meotz, 1713⁴³.

15.1. Hiriberriagerrikoa

Hemen ‘Hiriberri ageri den, ikusten den alderdiko ardantzea’ edo dugu:

“Otra viña en la parte llamada murelu bidea... Otra biña llamada Yriberri aguerricoa”, Aos, 1627⁴⁴.

15.2. Hiriberrimuga

“La parte llamada Yriberri muga Afrontada con... yermos conzegiles”, Meotz, 1710⁴⁵.

16. LABIO (LABIANO)

Izendegian **Labio** ageri da erdarazko **Labiano**-ren aldamenean, baina ez da aldaera laburtuaren lekukorik aipatzen. Galar-Ezkirotzen 1790. urtean Juan de Loiteguirena zen **Labionecoa** etxea dokumentatzen da⁴⁶.

17. LARRAGOA (LARRAONA)

Euskera-ko aipatu artikuluan euskaraz gehienetan azaldu ohi den **Larragua** aldaera jotzen dugu erdarazko **Larraona**-ren ordainik zuzenentzat, dokumentatu ere dugun **Larragoa** sekundariotzat hartzen dugularik, tarteko belare ahostuna sor zedin **w**-ren presentzia beharrezko baita, agi denez (cf. **guatze**, **guain**, **guartu**...). Guztiarekin ere, lan horretan berean, euskaraz behinik behin belarearen sorrera hitz hasieran gauzatu ohi dela zehazten dugu, ez hitz barruan.

Orain euskarazko aldaerak azaltzeko beste bide bat ere badela uste dugu, iturburutzat erdarazko **Larraona** gabe honen eta euskal formen aitzindari den XI-XIV. mendeetako **Larrafona**, **Larrahona** hartzen badugu⁴⁷. Lekuko hauek ikusirik zera pentsa daiteke, Nafarroako **Elgorriaga** herri-izenaren kasuan bezala, hemen ere antzinako hasperenak sorrarazi zuela belarea, ez kontsonanterdiak⁴⁸. Honen arabera bilakaera hau izango zen: **Larrahona** > **Larraona** (erdaraz), **Larragoa** > **Larrágua** ([laṛágwa], euskaraz). Ikusten den

43. PRA-Agoitz, 97. k., 70. zkia.

44. Ib., 17. k., 392. or.

45. Ib., 92. k., 23. zkia.

46. IEA, 2570. kart., 2. zkia., 5. or.

47. NHI, 206.

48. Ikus FHV, 224. or.

bezala, w sekundarioa litzateke, eta hortaz, aldaera batua aukeratzeko orduan **Larragoa** hobetsi behar genuke.

18. LARRASOAIN

Izendegiko lekukotasunak ikusirik badirudi **Larrasoaña**-ren bukaerako -a hori, jatorriz bederen, jantzi-erantzikoa zela. Egungo Iragiko euskaldunen arteko **Lasuin** [laéswéin] aldaera ere -a-rik gabeko formaren alde mintzo da. Orobat, beste toponimo batzuen osagai denean ere **Larrasoain** zein **Larrasuain** azaldu ohi da, honelakoetan bukaerako bokala ez agertzea elkarketaren arauai men egitearen ondorena izan daitekeen arren.

Guztiarekin ere, herri honetan euskaraz egindako XVIII. mendeko hitzaldian Larrasuaña eta Larrasuañaquec dugu:

“Dichosossco Erria, dichosoa diot dela Larrasuaña (...) eta finalmente egun da eguna ceñetan gustos beteric correspondacen baitiote Larrasuañaquet (sic) agrade-cimentuarequi”⁴⁹.

18.1. Larrasoainbidea

1892ko katastroan **Larrasuainbide**, **Larrasoainbide(a)**, eta **Larrasoainvidea** azaltzen dira Akerretan, **Larrosainbide**, **Larrasoinbidea** eta **Larrasoainbide** Ilurdotzen, **Larrasoainbide** Iruren, **Larrasoainbide**, **Larrasoainbide(a)** Sarasibarren, eta **Lusoanvidea** Urdaitzen. 1901eko katastroan **Larrasoain bidea** dugu Idoin, **Larrasoainvidea** Sarasibarren eta Ilurdotzen.

18.2. Larrasoainmendia

“Otra pieza en... Larrasoainmendia afta con termino de Larrasoaña”, Sarasibar, 1858⁵⁰.

“Otra (pieza) en Larrasoainmendi”, Sarasibar, 1858⁵¹.

1892ko katastroan **Larrasoainmendi** dugu, herri honetan.

18.3. Larrasoainzarra

Toponimo honetan ere -a gabe aurkitzen dugu⁵²:

“una vina en el termino de Larrasoayn Carra llamado basa gunea... tengo una vina en larrasoayncarra llamado (sic) Aizpea... una viña en Larrassoayn Çarr en la endrecera llamada Passagunea”, Larrasoaña, 1630⁵³.

49. José María SATRUSTEGI, ETZ-I, 57. or.

50. Agoizko hipot-5, 560. or.

51. Ib.

52. Florencio IDOATEK “Poblados y despoblados o desolados en Navarra (en 1534 y 1800)”, PV, 108-109, 1958, 309-338. orr., artikuluan Larasoain el viejo aipatzen du.

53. PRA-Uharte, 40. k.

1892ko katastroan **Larrasoainzar** dugu Idoín eta Sarasibarren.

19. LEDEA

Izendegian **Ledea** hautetsi bazen ere, bizirik dauden aldaerak **Ledia** eta **Leria** dira⁵⁴. Jatorrizko **Ledena**-tik atera behar zuen **Ledea** ondorioztatu baidin ezin zitekeen egin, aldaera bizia azentu azkarrari edo leporatuz. Halaz ere, orain badakigu 1726. urtean **Fermín de Ledea** izeneko laguna bizi zela Irunberrin:

“La Casa de Fermín de Ledea, viven en ella Juan Gómez y su muger son habitantes”⁵⁵.

20. LIZOAINIBAR

NHI-n **Lizoainibar** erdarazko **Valle de Lizoáin**-en erdarazko kideztat eman zen, Lizoain herri-izenetik bereizteko. Urrotzen, Lizoain herriko eta ibarreko muga, **Lizoainibar** toponimoa azaltzen da:

“una bina...en licoayn ibar... una piª en anguelu...”, 1590⁵⁶.

Aurrerago **Lizoáin Lizuin** bilakatu bide zen alderdiko euskaldunen artean (cf. **Lasuín** < **Larrasoain**, ikus sarrera hau).

20.1. Lizoainbidea

Lizuin kontsonante aitzinean **Lizun**- bilakatu bide zen (cf. **Irun**-, **Iruin**-, **Truñea**’ **Irunbidea**, **Iruinbidea** ugarietan):

“Mas otra viña... en el termino de Lizumbidea... otra pieza... en el camino que se ba al lugar de Lizoain”, Mendiorotz, 1828⁵⁷.

Euskal toponimoetatik kanpo ere orobatsu:

“Otra (pieza)... en... Ube, confina con Camino para Lizuin”, Erredin, 1839⁵⁸.

21. LUSARRETA

Izendegian **Lusarreta** aukeratu zen, baina dokumentazioan **Lusarreta** agertzen da:

54. Ikus NHI, 183.

55. Eusebio REBOLÉ DEL CASTILLO, *Historia de la villa de Lumbier-Ilumberri*, Irunberri, 1988, 280. or. Datu hau toponimia-bilketan ari den Mikel Velascori zor diogu.

56. PRA-Urrotz, 3. k., 8. k.

57. Agoizko hipot., 2. k., 299. org.

58. Ib., 302. org.

“Yten un Prado Enal en Lusarretabidea...”, Aintzioa, 1788⁵⁹.

Zabalegiko toponimia txikian ere **Lusarreta** dugu, eta nahiz aztergai dugun herri-izenarekin zerikusirik ez duen, garbi ageri da apikaridun soluzioa aski zabaldua egon dela Nafarroan:

“Otra pieza en Zelayertea... otra pieza... en Lusarreta”, 1689⁶⁰.

22. MARKELAIN

Izendegian, dokumentazioa eta gaurregungo lekukotasunak aintzat hartuta, **Markelain** hobetsi zen erdarazko **Marcaláin**-en euskarazko ordaintzat; etimologiak ere (< ***Marcellani**, omen) zer ikusia izanen zuenagatik erabakitzeke orduan. Gure irudiz egindako hautespena zuzena da, dokumentazioan azaldu eta oraindik bizirik egoteaz landara, **Markelain** toponimo bat baino gehiago agertzen baita han-hemenka. Sarri, alabaina, **Markelain**-ekin batera **Markalain** ere agertzen da, aurrekoaren aldaeratzat. Guk honako hauek bildu ditugu.

22.1. Markelain, Markalain (espalda de)

“otra p^a... en la espalda de marquelayn”, Zirauki, 1572⁶¹.

“una p^a en marquelayn y la otra pieça de Junto a la yglesia de aniz de Junto a la ymagen de nra señora... que afruenta con la senda que dizen salvidea y con el Camino que ban para pamp.”, Zirauki, 1573⁶².

“Ytten otra pieca En marquelayn... Ytten otra (pieca) En la misma Endreçera de maquelayn (sic)”, Deierri-Hiriberri, 1581⁶³.

“otra (pieça)... en... marquelayn...”, Iruxo, 1590⁶⁴.

“Saturnin de marquelayn vezino del dicho lugar de Sorauren...”, Sorauren, 1606⁶⁵.

“Una pieza... en el termino llamado Marcalain”, Erro, 1777⁶⁶.

Agorretan ere **Marcalain** dugu 1892ko katastroan.

22.2. Markelaina

Aldaera hau **Markelain**-en oinarrian **harana**-ren aldaera den **-araina** ikustearen alde mintzo liteke:

“dos piecas... en la parte llamada marquelayna”, Barindano, 1664⁶⁷.

59. PRA-Auritz, 42. k.

60. PRA-Elo, 11. k.

61. PRA-Zirauki, 2. k.

62. Ib.

63. PRA-Lizarra, 1. k.

64. Ib., 10. k.

65. PRA-Uharte, 43. k.

66. PRA-Auritz, 42. k. 1786an ere ediren dugu (ib.).

67. PRA-Artabia, 1. k.

1729an **Marcalain** itxurapean aurkitzen dugu⁶⁸.

22.3. Markelainburgaria

“una pieça...en la pte que llaman marquelayn burgaria”, Zirauki, 1574⁶⁹.

23. MURELU (URROZKO DESPOBLATUA)

Hemen, jakina denez, latineko mflurus ‘harresia, zerkoa’-ren txikigarria den mur^oellu-ren euskarazko ondorengoaren aitzinean gaude. Dagokion bezala -u-z akitua nahiz erdararen eraginez bukaeran -o duela aurkitzen dugu.

23.1. Mureluzabal

“una pieça... en los temos de la dca villa y en la pte y endre^a llamada murelu-cabal”, Urrotz, 1593⁷⁰.

“una pieça... en... Arca afrontada... a camino sendero que ba a las viñas que ban a murelocabal que afrenta con pieças de Joan de lana Eparozena y elcanorena y camino sendero que ban desde la dha villa a murillo”, Urrotz, 1634⁷¹.

Erroibarko Ardaitz herrian euskarazko **Murelu**-ren eta erdarazko **Murillo**-ren arteko zerbait dirudien **Morello** aurkitu dugu:

“yten otra (pieça)... en Zubingoa Afronta con camino p^a el Puente y el Rio... otra... en... Morello”, Ardaitz, 1808⁷².

Zubirin **Murelu** toponimoa dugu⁷³.

24. MURELU (MURILLO DE LONGIDA)

24.1. Murelubidea

“Otra viña en la parte llamada murelu bidea...”, Aos, 1627⁷⁴.

24.2. Murelugibela

“Una viña...en la parte llamada Mureluguibela”, Longida-Santsoain, 1630⁷⁵.

Toki-izen hau berau (?) Meotzen ere edireten dugu, erdi “itzulia”:

68. Ib., 23. k-bis.

69. PRA-Zirauki, 2. k.

70. PRA-Urrotz, 4. k., 43. zkia.

71. PRA-Uharte, 60. k.

72. PRA-Auritz, 42. k.

73. 1892ko kat.

74. PRA-Agoitz, 17. k., 392. org.

75. Ib., 18. k., 559. org.

“Mas una Viña...en la parte llamada murillo guibela en el Camino de artieda”, Meotz, 1640⁷⁶.

24.3. Murelumuga

“Mas una viña...sita en el termino de este dho lugar y en el que llaman murelu muga”, Aos, 1703⁷⁷.

“Una viña...sita en el termino...que llaman Murelu muga”, Aos, 1703⁷⁸.

Leku-izen honen erdarazko ordaina ere agertzen da:

“Ootra viña en el mojon de Murillo”, Aos, 1703⁷⁹.

25. OTAO

Izendegian **Otao** eman zen erdarazko **Otano**-ren baliakidetzat, dokumentazioko **Otau bidea**-n oinarri harturik⁸⁰. Guk herri-izen honen beste lekukotasun bat dakargu hona:

25.1. Otaorena (etxea)

“Mas otra pieza... en Ychausaran o Aguain que afronta con pieza de la Cassa de Otaorena y de la otra Con la de Martintorena (...) Mas otra (pieza) en Aizcorrondocoa bizcarra... que afronta con pieza de la Cassa de Otaorena”, Altzorritz, 1715⁸¹.

“Mas una pieza...que afronta con la de Otaorena...”, Altzorritz, 1715⁸².

26. TAXOARE

Tajonar erdarazkoaren euskarazko kidea den **Taxoare** ongi dokumentatua dagoen arren, guk aurkitu ditugun beste hiru lekuko ekarri nahi izan ditugu hona:

26.1. Taxoarena (Etsaingo etxea)

“Su casa llamada Jayria... afrontada con casa de tasoarena y churdinena del dicho lugar... otra cassa por baxo de la dha Jayria LLamada echettoa con un corral... cassi peganttes con las dichas casas de tasoarena y churdinena”, Etsain, 1644⁸³.

76. Ib., 19. k., 79. org.

77. Ib., 90. k., 239. or.

78. Ib., 401-401g.

79. Ib., 371. org.

80. Ikus NHI, 186.

81. PRA-Elo, 16. k.

82. Ib.

83. PRA-Uharte, 41. k.

Imarkoainen eta Labion ere aurkitu dugu, aski itxuraldatua.

26.2. Taxo(a)rebidea

“Otra (pieza) en el termº de Tasarovidea”, Imarkoain, 1801⁸⁴.

“Mas otra (pieza) en Tasarore videia”, Labio, 1801⁸⁵.

27. XABERRI

Erdaraz Javerri deitzen den herriaren euskarazko izentzat **Exaberri** eman zen izendegian, XIII. mende arteko dokumentazioa aintzakotzat harturik. Guztiarekin ere, **Saverri** XI. menderako aurkitzen dugu, eta hau da, izan ere, XVI. eta XVII. mendeetako dokumentazioan aurkitu ohi dugun aldaera (**Xaberri** [šabēri] alegia):

“En los docs termjos del dco lugr de meoz Camjo de Aoyz que ba para el lug de Saberry”, Meotz, 1590⁸⁶.

“otra pª... en la misma endreª (Narbaitzen) en el Camino de Saberry”, Meotz, 1591⁸⁷.

“otra piª... en la misma endreª (Narbaitzen) en el mojon de Saberry”, Meotz, 1591⁸⁸.

“una pieça... en la parte llamada narbayça... afruenta con Camino q ban para el lugar de Saberri”, Meotz, 1611⁸⁹.

27.1. Xaberribidea

Euskal toponimo baten osagaitzat ere Xaberri (Saberri idatzia) dugu:

“Otra pieça en Saberribidea... que afruenta con Camino q ban a Saberri”, Meotz, 1611⁹⁰.

Gure irudiz, izen honen etimologia, dokumentazioko aldaerak eta erdarazko forma ikusirik, **Xaberri** hautatu behar genuke aldaera batutako, ez urrutiegi gelditzen zaigun **Exaberri**.

28. ZUHATZU (ITZAGAONDOA)

Arakilgo izen bereko herria **Zubétzu** da inguruko euskaldunen ahotan, lehen bi bokalen artean ezpainbiko igurzkari ahostuna duelarik. Hau hiatoa segurtatzeko soinua izan daiteke (cf. **suberte** < **suerte** izen arrunta), edo le-

84. PRA-Elo, 50. k., 33. zkia.

85. Ib., 111. zkia.

86. PRA-Uharte, 5. zkia.

87. Ib., 81. zkia.

88. Ib.

89. PRA-Agoitz, 13. k.-bis.

90. Ib.

henagoko bokal arteko belare igurzkari baten ondorengoa (cf. **Uberka** ugarriak, **Ugarka** lehenago, **u(h)arka** jatorriz, **Uberte** ‘Arakil-Uharte’, **Ugarte** ‘Egues-Uharte’, inguruko herrietan, **Uharte** Iparraldean, edo oraingo **Uberan** arruntak, **Ugaran** lehenago), hots, ***Zugatzu**-tik atera ahal izan da (< **Zuga(i)tz** + **-zu**, lehen elementu hori, bere aldetik, **zur**-en eratorria delarik, **zu(h)**- edo **zug**- elkartuetan), Arakilgo herri-izenaren kasuan horren lekukorik ez badugu ere. NHI-n Itzagaondoko **Zuhatzu**-ren dokumentazioan ere ez dugu **Zugazu** aldaerarik, baina guk forma hau euskal toponimo baten osagaitako aurkitzeko zortea izan dugu, **Zuazu**-rekiko txandaketan⁹¹.

28.1. Zuhatzubidea, Zuhatzubidegaña, Zuhatzubidepea

“Mas otra vina en Zugazubidepea... que afronta con vina de Gorricena y con la de Pellorena”, Altzorritz, 1715⁹².

“una biña... en el paraje llamado zuazubidea que afrenta con vina de la Cassa de Gorricena”, Altzorritz, 1715⁹³.

“Otra pieza... en el paraje que llaman Zuazu bidegaña que afronta con Camino para Çuazu y... con pieza de Bastancorena”, Altzorritz, 1715⁹⁴.

“Una pieza... en el termino de Zugazubidea que afronta con pieza de Pellorena y de la otra Con el Camino de Zuazu”, Altzorritz, 1715⁹⁵.

“Otra pieza... en el termino de Zugazubidegaña que afronta con pieza de la Cassa de Garchotena y de la otra con la de Dn Loperena”, Altzorritz, 1715⁹⁶.

29. ZUDAIRI

Pare bat aldiz aurkitu dugu izen honen **-i-z** akitu aldaera, XVI. mendean:

“nosotros Rodrigo dequala / e marina Rodriguez (?) de galarreta my muger vezos. del lugar de Cudarj...”

Agiriaren gibelaldean hau dugu:

“Conpra de Ju^a Veltran de albizu de las piecas q don p^o de Rodrigo dequala y su muger vezos. de Cudayrj...”, Zudairi, 1545⁹⁷.

⁹¹ Euskarazko izenak, 1987, 100. or. (1987, 100. or.).

ETZ-I: *Euskal Testu Zaharrak-I*, José María SATRUSTEGI, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987.

FHV: *Fonética Histórica Vasca*, Koldo MITXELENA, Donostia, 1976.

91. Txistukari afrikaria zuelako frogarik ez dugun arren, etimologikoki afrikaria behar du (< **zu(g)a(i)tz** + **-zu**, esan bezala), eta dokumentazio zaharra ere horren alde mintzo da (Çuaçu, Çuazçu dugu 1268an eta 1366an, Çuatçu 1280an eta 1591n). Bestalde, Arakilgo herriaren izena Zubetzu da alderdiko euskaldunen artean, esan dugun bezala.

92. PRA-Elo, 16. k.

93. Ib.

94. Ib.

95. Ib.

96. Ib.

97. PRA-Lizarra, 2. k.

Ib.: ibidem.

IEA: Iruñeko Eliz Artxibategia.

Kart.: kartoia.

Lib.: liburua.

NHI: *Nafarroako Herri Izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990.

NTEM: *Nafarroako toponimia eta mapagintza*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1993az gerotik.

Or.: orrialdea.

Org.: orrialde-ginberra.

PRA: protokolo-artxibategia.

PV: *Príncipe de Viana*.

Zkia: zenbakia.

LABI RPENA

Lantxo hau *Euskera* aldizkarian argitara emandako izen bereko beste lan baten segida eta osagarria da. Bertan, Nafarroako zenbait herri eta ibarren euskarazko forma zein den ikertu nahi izan dugu, aipatu izen horiek euskal toponimo txikietan aurkezten duten aldaeran oinarri harturik.

RESUMEN

Este artículo es continuación y complemento de otro publicado en la revista *Euskera*. El objetivo perseguido no ha sido otro que el dar a conocer las formas vascas de algunos pueblos y valles de la geografía foral, basándonos en la variante que presentan estos nombres en la toponimia menor vasca.

RÉSUMÉ

Cet article constitue la suite et le complément de celui qui a été publié dans le magazine *Euskera*. L'objectif poursuivi ne fut autre que celui de faire connaître les formes basques de quelques villages et vallées de la géographie "forale", en se basant sur la variante que ces noms présentent dans la toponymie mineure basque.

SUMMARY

This paper is the continuation and complement of another one appeared in the periodical *Euskera*. The objective aimed at is no other than to present the Basque form of the toponyms of some villages and valleys of the Navarrese geography, based on the variety these place-names show in the minor Basque toponymy.